

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak, gure produktuaren ideia beste enpresa bati salduko diogu, honek produktua sor dezan. Beraz, ekoizleak izan beharrean banatzaileak izango gara beharrezko baliabiderik ez ditugulako. Enpresa sortu aurretik, produktua sortuko duen beste enpresa batzuekin elkartuko gara.

Ondoren, produktua ondo funtzionatzen duela ziurtatuko duen beste enpresa batekin elkartu behar izango gara. Besteak bestek: Yuasa, Japoniako pilekin eta bateriekin zerikusia duen enpresa garrantzitsu bat; EnerSys, Saft... Arazo informatikoak edukitzekotan ere, informatikan espezializatuta dagoen enpresa honek laguntza eskainiko digu.

Horretaz aparte, gure produktua bezeroari helarazi ahal izateko, enpresa banatzaile batekin elkartu behar izango gara. Bezeroak arazoren bat izanez gero, enpresa banatzaile honetaz baliatuko gara, produktuak gure enpresara itzularazteko eta beste produktu berri bat bezeroari berriro helarazteko. Enpresa honekiko menpekotasuna edukiko dugu baita ere.

Funtsezko sozietatea, enpresa hornitzaile hori, hau da produktua sortu digun enpresa izango da. Menpekotasuna dugu enpresa klabe horrekiko, honekin arazoren bat izanez gero, ez genukeelako produktua edukiko. Enpresak aurrera egin ahala, eta hau garatuz joan ahala, enpresa horrekiko menpekotasuna galduko genuke, beste enpresa batzuekin elkartuko ginatkeelako. Horrela, gure hornitzailea den enpresa batek arazo bat izanez gero, ez gintuzke hainbeste kaltetuko, beste enpresa batzuen baliabideak edukiko genituzkeelako.



